



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2023KO ABUZTUAREN 31N BASABURUKO UDALAK **EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2023ko Abuztuaren 31ean, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Javier Auza, Alaia Etayo, Iker Isiegas, Micaela Elizalde eta M^a Mar Ansorena.

BERTARATU EZ DIRENAK: Julen Beunza.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Uztailaren 27ko ohiko eta ez ohiko batzarren aktak onartu dituzte bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali direnak

2.- Alkate ebazpenak

- 2023/07/28 ebazpena lametza empresak aurkeztutako aurrekontua onartuz, 960 euro BEZ kanpoko aurrekontua web orria moldatu eta formakuntza emateko bai udal langileei bai nahi duen zinegotziari.
- 2023/07/28 alkate ebazpena onartuz Alicia Esther Legarrari zaharberritzeko dirulaguntza 337 eurokoa egurrezko galdara jartzeko.
- 2023/07/28 Berueteko garaikoa etxean bi etxebizitza egiteagatik zaharberritzeko dirulaguntza onartzen duen alkate ebazpena, osotara 6.469,69 euroko laguntza.

- 2023/08/27 Basaburuko ostalariei zuzendutako energiaren gain kostea saihesteko dirulaguntza eskaerak onartuz, Ernaizuri 1832.44 euroko laguntza, Orokietakoko ostalariei 532.10 euro eta Berueteko ostalariari 820.72 euro.
- 2023/08/01 iharduera baimenaren aldaketa onartuz Arrarasko 14. Poligonoko 359. Lursalean dagoen abere ustiapenerako, Alfredo Garciaren izenera pasatu.
- 2023/08/02 zaharberritzeko dirulaguntza onartu, Karmele Legarrak egindako eskaeraren arabera, etxebizitzaren fatxadak margotzeko obragatik, 374 euroko laguntza onartuz-
- 2023/08/02an onartutako ebazpena Esan Erran Irratiari baimena emanaz abuztuaren 3an Apeztegi berriko ganbara erabiltzeko.
- 2023/08/04an onartutako alkate ebazpena Basaburuko ireber elkarteari baimena emanaz abuztuaren 6an polikiroldegia erabiltzeko.
- 2023/08/08ko datarekin onartutako ebazpena Argimalutak elkarteari ganbara erabiltzeko adinduen yoga klaseak abuztua eta irailean emateko.
- 2023/08/10 onartzen zaio Alaia Etayori alkatea eskuordetzea ezkontza bat burutzeko.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte onartutako alkate ebazpenak.

3.- Ihabengo aisialdi gunearen erabilera arautzen duen ordenantza. Hasierako onespena.

Alkateak azaltzen du urtean joan ahala geroz eta gehiago erabiltzen da aisialdi gunea bereiziki udan. Horregatik eta erabilera berdina duten eta beste udalerrri batzuetan dauden guneen erabilera araua dagoenez ordenantza bidez, Ihabengo pasarelen gunerako ordenantza zirriborroa prestatu da.

Bertan biltzen diren besteen artean honakoak:

- Gunea erabiltzeko ordutegia, goizeko 9etatik, gabeko 21etara.
- Debekatua dago bertan lo egitea eta gaua pasatzea.
- Zaborrak bildu beharko dira.
- Ezingo dira boz goragailuak erabili
- Debekatua ere sua egitea.
- Animaliak ezingo dira solte ibili.
- Ezin da a autoa aparkatu aparkatzeko gunetik kanpo
- Ondoan dauden lursail pribatuetan ezin da sartu.

Ordenantzaren tramitazioa bukatzen denean panel informatibo bat jarriko da arauak irakurgai egoteko.

1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazio Legearen 325. Artikuluaren arabera, ordenantzen tramitazio hau izanen litzake:

“Toki-erregelamenduak eta -ordenantzak onartzeko, prozedura hau bete beharko da: Toki-erakundearen osoko bilkurak hasierako onespina ematea. Jendeurrean jartzea, aldeztu aurretik Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta entitatearen iragarki-oholean iragarri ondoren onespina-erabakia, gutxienez hogeita hamar eguneko epean, auzotarrek eta legezko interesdunek espedienteaz aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharrik egin ahal izan ditzaten. Aurkeztutako erreklamazioak, eragozpenak edo oharrik ebatzea, eta a) atalean aipatutako organoak behin betiko onartzea. Hala ere, hasierako onespina-erabakia behin betikoa izango da erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik egin ez bada. Kasu horretan, ondorio juridikoak sortzeko, inguruabar hori, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu beharko da.”

Hortaz bildutakoek aho batez ondoren zehaten den erabakia hartzen dute goian aipatutako 1990/ 6 Nafarroako Tokiko Administrazio Foru LEgearen 325. Artikulua jarraituz-

Hasiera batez onartzea lhabengo aisialdi gunearen erabilera arautzen duen ordenantza eta erabaki hau Nafarroko Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu, hilabeteko epean jendeurrean egon dadin.

4.- Mozioak

Ez dago moziorik.

5. Batzordeen informazioa.

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa:

Eskola garraioaren inguruan azaltzen du 3 zerbitzu izango direna, batek ikasleak Askatasuna ikastetxera eramango dituen, eta ibilbide honekin: Jaunsarats- Aizarotz. Ultzama- Askatasuna.

Bigarren zerbitzua Lekunberritik abiatuko da Burlata inguruko ikastetxetara ikasleak eramateko. Honen Jaunsaratsen izango du geltokia eta 3 ikasle izango dira honen erabilgaitzak, 2 lgoakoak eta bat Aizarotzkoa.

Azken zerbitzua ere Lekunberritik aterako da eta Iturrama, Donapea eta beste ikastetxetara joateko izango da.

Oraindik Hezkuntza Departamentuak ez ditu ibilbide hauek esleitu hortaz oraindik ez enpresa ez ordutegi zehaztuak eta hortaz hori jakin gabe ezin da antolatu udaleko taxi zerbitzua, Basaburuko herrietako ikasleak Nafar Gobernuak zerbitzu honek jarri dituen geltokietara eramateko.

Ttikienako zuzendariarekin ikasturte hasierako bilera burutu da, bertan bi familiek baja egingo dutela adierazi zen. Patioa hobetzeko laguntza eskatu baina ez dutenez onartu erabaki zen beharra ikusten zelako, belar artifiziala jartzea patioaren zati batean eta

bertan ere diru laguntza onartzen ez dituzten paleez egindako bi sofa eta jolateko erabiltzen dituzten harriak.

Bukatzeko ordenagailu berri bat erosteko eskaera egin zuten eta aurrekontu ezberdinen artean bat erostea erabaki 739 euro inguruko kostearekin.

Kirol batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa:

Adinduen yoga ikastaroari hasiera emateko, 60 urtetik gorako bizilagunei gonbidapen gutuna bidaliko zaie. Izena emateko epea irailaren 11etik 15era luzatuko da.

6- Informazio orokorra.

-Komunitate energetikoen inguruko bileran hasiko dira egiten, irailaren 7an Atzen izango da, Irailaren 14an Imotz, eta irailaren 27an Jaunsaratsen euskaraz.

Ondoren beste erronda bat egingo da, gaian gehiago sakontzeko, komunitatea nola sortzen diren eta beste azalduko da,

Bukatzeko gai zerrendatik kanpo eta ogasun batzordean aztertu ondoren badagoela erabakitzeko gai bat azaltzen du alkateak, eskolan ostiraletan jarri nahi den jantokik zerbitzuarekin harremana duena.

Bildutakoek aho batez onartzen dute gaia gai zerrendan sartzea aztertu eta erabaki bat hartzeko.

Eskolako jantoki zerbitzurako begiralearen gastua.

Alaia Etayok azaltzen du, ogasun batzordean adierazi bezala, ikasturte honetan ostiraletan ikasleak 13etan ateratzen dira

Gurako elkarteak jantoki zerbitzua jartzeko beharra ikusi zuen, Ausolanekin harremanetan jarri dira eta jantoki zerbitzua emateko aurrekontua aurkeztu dute. Bertan agertzen da menuaren balioa 4.21 eurokoa dela eta hau gurasoek ordainduko dutela onartu zuten, baina gastu honetaz gain 2 ordurako begirale baten beharra dago, bazkaria berotu, jantokia prestatu eta ondoren garbitzeko.

Koste hau 3.500 euro ingurukoa izango da ikasturte osorako. Ogasun batzordean aztertu ondoren udalarentzat bideragarria dela ondorioztatu da eta hezkuntza batzordeko aurrekontutik aterako da gastu honi aurre egiteko dirua.

Bildutakoek proposamena Ogasun Batzordean ontzat eman ondoren aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

Onartzea Basaburuko Udalak bere gain hartzea 2023-2024 ikasturterako, ostiraletan Oihanzabal eskolan guraso elkarteak martxan jarriko duen jantoki zerbitzuaren begiralearen kostea.

Erabaki hau bideratu Ausolan empresari.

7. Errege-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 19:55 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.